

## ARABAKO FORU ALDUNDIA

## DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA

## Xedapenak eta Administrazio Ebazpenak

## Diputatuen Kontseiluaren Foru Dekretuak

## NEKAZARITZA SAILA

7230

**71/2007 FORU DEKRETUA**, urriaren 23ko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, basogintzako laguntza plana onartu zuen maiatzaren 2ko 43/2007 Foru Dekretua aldatu zen.

Maiatzaren 2ko Diputatuen Kontseiluaren 43/2007 Foru Dekretuaren bidez onartu zen Basogintzako laguntza plana, Europar Batasuneko Kontseiluaren irailaren 20ko 1698/2005 (EE) Arautegia, Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtzen (LGENF) bidez 2007-2013 epean nekazaritza aldean garapenari laguntzekoa, oinarria hartuta.

1698/2005 (EE) Arautegiaren 49. artikuluan jasotakoa eta Euskal Autonomia Erkidegoko landa garapen iraunkorrek 2007-2013ko plana behin betiko onartzei buruz igorritako azken dokumentua kontuan izanda, baliteke Basogintzarako laguntzen Arabako planean jasotako kasuak ugartzea, zertarako eta antolakuntza planak edo basoen kudeaketa iraunkorrerako plan teknikoak diruz lagundu ahal izateko, planok ezin direnean bildu aholkularitza zerbitzuak erabiltzeko laguntzetarako 1. ardatzeko lerroa eta ahal direnean bildu baso lurra era iraunkorrean erabiltzeko inbertsio ez produktiboetarako 2. ardatzeko laguntzetara. Horretarako, ondoko proposamena mahai-gaineratzen da:

Esandakoaren ondorioz, Nekazaritza Saileko foru diputatuaren proposamenez, eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu eta gero, ondokoa

## XEDATU DUT:

Lehenengoa.- 43/2007 Foru Dekretuaren bidez onartutako basogintzarako laguntza plana aldatzea, hau da, 26. artikuluan 4. paragrafoa sartzea. Hona hemen:

“4.- Antolakuntza planak eta basoen kudeaketa iraunkorrerako plan teknikoak”.

Bigarrena.- Modulu baremoa, II. eranskinera beste lerro bat biltzea, honatx:

LERROA	ZERGATIA	MODULUA	UNIT.	MUGA
2.4.1.5.	Antolakuntza planak eta basoen kudeaketa iraunkorrerako plan teknikoak	Teknikarien ordainsarien arabera		Mendi Zerbitzuak kontrastatua

Vitoria-Gasteiz, 2007ko urriaren 23a.- Diputatu nagusia, XABIER AGIRRE LÓPEZ.- Nekazaritza Saileko foru diputatua, ESTEFANÍA BELTRÁN DE HEREDIA ARRÓNIZ.- Nekazaritza zuzendaria, JOSÉ MARÍA GARCÍA TABERNERO.

## GIZARTE POLITIKAREN ETA GIZARTE ZERBITZUEN SAILA

7232

**70/2007 FORU DEKRETUA**, urriaren 23ko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, mendekoak familian bertan zainduak izan daitezten, prestazio ekonomikoa arautzen da.

Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutua onartzen duen abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren 9.2.d artikulua xedatzen du euskal agintariak, beren eskumen eremuan “Gizabanakoaren eta berori sartuko den taldeen askatasuna eta

## Disposiciones y Resoluciones Administrativas

## Decretos Forales del Consejo de Diputados

## DEPARTAMENTO DE AGRICULTURA

7230

**DECRETO FORAL 71/2007**, del Consejo de Diputados de 23 de octubre, que modifica el Decreto Foral 43/2007, de 2 de mayo, por el que se aprobó el Plan de Ayudas Forestales.

Por Decreto Foral 43/2007, del Consejo de Diputados de 2 de mayo, se aprobó el Plan de Ayudas Forestales, en base al Reglamento (CE) 1698/2005, del Consejo de la Unión Europea de 20 de septiembre, relativo a la ayuda al desarrollo rural a través del Fondo Europeo Agrícola de Desarrollo Rural (FEADER), durante el nuevo período de programación 2007-2013.

Habiendo observado que, de conformidad con lo previsto en el artículo 49 del Reglamento (CE) 1698/2005 y con el último documento remitido en relación con la aprobación definitiva del Plan de Desarrollo Rural Sostenible (PDRS) de la Comunidad Autónoma de Euskadi 2007-2013, es posible la ampliación de los supuestos contemplados en el Plan de Ayudas Forestales de Álava a fin de permitir la subvención de aquellos Planes de Ordenación o Planes Técnicos de Gestión Forestal Sostenible que por la extensión abarcada no se pudiesen incluir en la línea prevista a estos efectos en el Eje 1 para ayudas a la utilización de servicios de asesoramiento y sí, en cambio, cabría la inclusión de dichos proyectos entre las ayudas previstas en el Eje 2 para inversiones no productivas que han de procurar la utilización sostenible de las tierras forestales, a cuyo fin se propone:

Por lo expuesto, a propuesta de la Diputada de Agricultura, previa deliberación del Consejo de Diputados en sesión celebrada por el mismo en el día de hoy

## DISPONGO:

Primero.- Modificar el Plan de Ayudas Forestales, aprobado por Decreto Foral 43/2007, en el sentido de introducir en su Artículo 26 un nuevo apartado 4 que diga:

“4.- Planes de Ordenación y Planes Técnicos de Gestión Forestal Sostenible que provean a la utilización sostenible de las tierras forestales”.

Segundo.- Incluir en el Anexo II, Baremo de Módulos, una nueva línea que diga:

LÍNEA	CONCEPTO	MÓDULO	UD	LIMITACIÓN
2.4.1.5.	Planes de ordenación y planes técnicos de gestión forestal sostenible	s/Honorarios técnicos		Contratación S. Montes

En Vitoria-Gasteiz, a 23 de octubre de 2007.- Diputado General, XABIER AGIRRE LÓPEZ.- Diputada de Agricultura, ESTEFANÍA BELTRÁN DE HEREDIA ARRÓNIZ.- Director de Agricultura, JOSÉ MARÍA GARCÍA TABERNERO.

## DEPARTAMENTO DE POLÍTICA SOCIAL Y SERVICIOS SOCIALES

7232

**DECRETO FORAL 70/2007**, del Consejo de Diputados de 23 de octubre, regulador de la prestación económica para cuidados en el entorno familiar de personas en situación de dependencia.

La Ley Orgánica 3/1979, de 18 diciembre, por la que se aprueba el Estatuto de Autonomía del País Vasco, declara en el art. 9.2.d que los poderes públicos vascos, en el ámbito de su competencia adoptarán aquellas medidas dirigidas a promover las condiciones y

berdintasuna zinezkoa eta egjazkoa izan daitezen, diratekeen oztupoak erauzteko eta aldeko kondizioei eragiteko neurriak hartuko dituzte"la.

Horren harira, Estatutuaren 10. artikulua xedatzen du gizartegintza gaietan autonomia erkidegoak duela eskumen eksklusiboa.

Bestalde, Autonomia Erkidego Osoko Erakundeen eta Bertako Lurralde Historikoetako Foru Erakundeen Arteko Harremani buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 7.c artikulua ezartzen du lurralde historikoei dagokiela beren eremuan gizartegintza gaietan erakunde komunak legegintza, nahiz eta Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde komunak ere zuzenean jardun ahal izan. Halaber, lege berorren 8. artikulua xedatzen du lurralde historikoei dagozkien gaietan beren zerbitzuak antolatzeke ahalmen arautzailea lurralde historiko horiek izango dutela.

Aurreko lege guztiak garatze aldera, Gizarte Zerbitzuen urriaren 18ko 5/1996 Legeak, zenbait prestazio bermatzeaz gain, erantzukizun publiko baten bidez, eskubide bat antolatzea, egituratzea, sustatzea eta bermatzea du helburu, hots, herritarrek gizarte zerbitzuak jasotzeko duten eskubidea.

Geroago, Beregaintasun Pertsonala Sustatzeko eta Mendekotasun Egoeran bizi diren Pertsonen Laguntzeko abenduaren 14ko 39/2006 Legeak prestazio berriak ezarri ditu. Horien artean, familiakoek edo beste batzuek inoren beharra duten pertsonak aldundiaren egoitzetan ordez etxean bertan artatzea erraztu nahi dutenak. Horretarako prestazio ekonomikoak bideratzen dira.

Arabako Lurralde Historikoan prestazio hori betearzteak, ordea, estatuko legea arau bidez garatzeko beharra dakar berekin, batez ere oraindik eman ez diren prestazioen lege araubideari (onuradunen betebeharrak; prestazioa jasotzeko baldintzak; zaintzaile ez profesionalaren betekizunak; laguntzaren zenbatekoa; prestazioa aldatzea, etetea eta galtzea...) dagokionez.

Bestalde, ekainaren 20ko 21/1998 Foru Arauaren bidez Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde Autonomoa eratu zen. Eratu ere Arabako Foru Aldundiaren egungo Gizarte Politikaren eta Gizarte Zerbitzuen Sailari atxikia. Halaber, urtarrilaren 13ko Diputatuen Kontseiluaren 2/2004 Foru Dekretuak erakunde autonomo horren egitura eta funtzionamenduaren arautegia onartu zuen. Erakunde horrek Arabako foru administrazioaren eskumen diren gizarte zerbitzuekin zerikusia duten jarduerak antolatzea, kudeatzea, eskaintzea eta burutzea du helburu.

Horiek horrela, Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde Arabako Lurralde Historikoko gizarte zerbitzuen sare publikoaren kudeatzailea da eta, beraz, Beregaintasun Pertsonala Sustatzeko eta Mendekotasun Egoeran bizi diren Pertsonen Laguntzeko abenduaren 14ko 39/2006 Legeak xedatutakoak aplikatzeko eskumena duen erakunde. Hortaz, lege horren xedapen gehigarrietatik hamabigarrenak Euskal Autonomia Erkidegoko foru aldundien berezitasunak berariaz aintzatesten ditu, eta foru aldundi horiek mendekotasun egoeran dauden pertsonen autonomiarako edo haiek artatzeko sistemaren zati dira.

Azkenik, Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Lege Araubidearen abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauaren 7. artikulua Diputatuen Kontseiluari eskumena ematen dio arauak emateko ahalmena baliatzeko, foru arauak, autonomia erkidegoetako legeak eta Estatuarenak garatze aldera.

Horregatik, Gizarte Politikaren eta Gizarte Zerbitzuen Saileko foru diputatuak proposatuta, eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu eta gero, ondokoa

#### XEDATU DUT:

Lehenengo.- Arabako Lurralde Historikoan Beregaintasun Pertsonala Sustatzeko eta Mendekotasun Egoeran bizi diren Pertsonen Laguntzeko abenduaren 14ko 39/2006 Legeak mendekotasun egoeran daudenak etxean bertan zainduak izan daitezen xedatutako

a remover los obstáculos para que la libertad y la igualdad del individuo y de los grupos en que se integra sean efectivas y reales.

En coherencia con ello, el art.10 del Estatuto establece que la Comunidad Autónoma del País Vasco tiene competencia exclusiva, entre otras, en materia de Asistencia social.

Por su parte, la Ley 27/1983, de 25 de noviembre, de Relaciones entre las Instituciones comunes de la Comunidad Autónoma y los órganos forales de sus Territorios Históricos, señala en su art. 7.c que corresponde a los Territorios Históricos la ejecución dentro de su territorio de la legislación de las Instituciones Comunes en materias de Asistencia social, sin perjuicio de la acción directa de las Instituciones Comunes del País Vasco, indicándose asimismo en el art. 8 que en las materias en que corresponde a los Territorios Históricos la ejecución, tendrán la potestad reglamentaria, para la organización de sus propios servicios.

En desarrollo de las leyes anteriores la Ley 5/1996, de 18 de octubre, de servicios sociales, contempla como objetivo no ya garantizar una serie de prestaciones, sino ordenar, estructurar, promover y garantizar mediante un sistema de responsabilidad pública un derecho, el derecho de la ciudadanía a los servicios sociales.

Posteriormente, la Ley 39/2006, de 14 de diciembre, de Promoción de la Autonomía Personal y Atención a las personas en situación de dependencia, ha establecido nuevas prestaciones, entre las cuales se encuentra la de facilitar la atención de personas dependientes, por parte de sus familiares directos o de otras personas, en su propio domicilio, evitando así su residencialización, articulándose a través de una prestación económica.

Sin embargo, la ejecución de dicha prestación en el Territorio Histórico de Álava exige un desarrollo reglamentario de la Ley estatal, en cuanto se refiere al régimen jurídico de la prestación (requisitos de los beneficiarios; condiciones de acceso a la prestación; requisitos de la persona cuidadora no profesional; determinación de la cuantía; modificación, suspensión y extinción de la prestación, etc..) que todavía no se ha producido.

Por otra parte, hay que señalar que mediante la Norma Foral 21/1988, de 20 de junio, se constituyó el organismo autónomo Instituto Foral de Bienestar Social, adscrito al actual Departamento de Política Social y Servicios Sociales de la Diputación Foral de Álava, y el Decreto Foral 2/2004, del Consejo de Diputados de 13 de enero, aprobó su Reglamento de Estructura y Funcionamiento. Los fines de este organismo son la organización, gestión, prestación y ejecución de las actividades relacionadas con los servicios sociales cuya competencia se encuentra atribuida a la Administración Foral alavesa.

Desde esta perspectiva, el Instituto Foral de Bienestar Social se configura como el organismo gestor de la red pública de servicios sociales que existe en el Territorio Histórico de Álava y, por tanto, es el organismo competente para aplicar los contenidos de la Ley 39/2006, de 14 de diciembre, de Promoción de la Autonomía Personal y Atención a las Personas en Situación de Dependencia. En este sentido, la Disposición Adicional Duodécima de esta Ley reconoce expresamente las especificidades de las Diputaciones Forales, en el caso de la Comunidad Autónoma del País Vasco, como entidades territoriales que forman parte del Sistema para la Autonomía y Atención a la Dependencia.

Finalmente, el artículo 7 de la Norma Foral 52/1992, de 18 de diciembre, de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de la Diputación Foral de Álava, atribuye al Consejo de Diputados la competencia para ejercer la potestad reglamentaria, en desarrollo de las Normas Forales, las Leyes de las Comunidades Autónomas y las del Estado.

En su virtud, a propuesta de la Diputada Foral de Política Social y Servicios Sociales, y previa deliberación del Consejo de Diputados en sesión celebrada en el día de hoy,

#### DISPONGO:

Primero.- Aprobar la normativa reguladora de la prestación económica para cuidados en el entorno familiar prevista en la Ley 39/2006, de 14 de diciembre, de Promoción de la Autonomía Personal y Atención a las personas en situación de dependencia, en el Territorio

prestazio ekonomikoak xedatzen dituen arautegia onartzea foru dekretu honen eranskinean idatzitako eran.

**Bigarren.-** Foru dekretu honek Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango du indarra.

**Hirugarren.-** Erabaki hau Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratzeko agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2007ko urriaren 23a.– Diputatu nagusiordea, CLAUDIO RODRÍGUEZ GUTIÉRREZ.– Gizarte Politikaren eta Gizarte Zerbitzuen Saileko foru diputatua, COVADONGA SOLAGUREN SANTAMARÍA.– Gizarte Politikaren eta Gizarte Zerbitzuen zuzendaria, AMPARO MAIZTEGUI ADAY.

### Eranskina

#### ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAN BEREGINTASUN PERTSONALA SUSTATZEKO ETA MENDEKOTASUN EGOERAN BIZI DIREN PERTSONEI LAGUNTZEKO ABENDUAREN 14KO 39/2006 LEGEAK MENDEKOTASUN EGOERAN DAUDENAK ETXEAN BERTAN ZAINDUAK IZAN DAITEZEN XEDATUTAKO PRESTAZIO EKONOMIKOA

##### 1. artikulua. Helburua

Foru dekretu honek Arabako Lurralde Historikoan Beregintasun Pertsonala Sustatzeko eta Mendekotasun Egoeran bizi diren Pertsonen Laguntzeko abenduaren 14ko 39/2006 Legeak mendekotasun egoeran daudenak etxean bertan zainduak izan daitezen xedatutako prestazio ekonomikoa arautzea du helburu.

##### 2. artikulua. Definizioa

Mendekotasun egoeran daudenak familiaren baitan zainduak izan daitezen emango den prestazio ekonomikoak zaintzaile ez profesionalak eskaintako arretak eragindako gastuak kitatzen laguntzea du xede. Mendekotasun egoeraren edozein gradu eta maila onar daiteke, baldin eta hura jasotzeko baldintzak betetzen badira.

**3. artikulua.** Prestazio ekonomikoaren eta Arabako Foru Aldundiaren gizarte zerbitzuak erabiltzeko eskubidearen bateragarritasuna eta ondorioak

1.- Foru dekretu honek araututako prestazio ekonomikoaren inoren beharra duten pertsonak artatzeko foru aldundiaren mendeko den beste edozein zerbitzuren erabiltzaile izatearekin bateragarria da, salbu eta foru aldundiak berak edo, hitzarmen bidez, haren esanetara dagoen erakundeek eskaintzen duten etenik gabeko egoitzako arreta zerbitzuekin eta 39/2006 Legeak xedatutako prestazio ekonomikoekin.

2.- Halaber, prestazio ekonomikoa eta onuraduna foru aldundiaren mendeko edozein zerbitzuko baliabideak esleitzeko programetan sartzea bateragarria da, baita egoitzako arreta zerbitzuan sartzearekin ere.

##### 4. artikulua. Zerbitzuak aldi berean erabiltzea

1.- Prestazio ekonomikoa jasotzeaz gain etxerako laguntza zerbitzua ere jasotzen bada, dirulaguntza batez besteko hiru puntu gutxituko da ordu tarteko, hilean emandako zerbitzu ordu hauetatik:

ORDU/HIL	<20	<40	<60	<80	80 ORDU EDO GEHIAGO
Ehunekoak	3	8,5	14	19,5	25

2.- Prestazio ekonomikoa jasotzeaz gain Arabako Foru Aldundiak esleitutako eguneko zentroko, publiko zein hitzartutako, zerbitzu bat edo eguneko arretarako landa zentroak ere erabiltzen badira, prestazio ekonomikoa % 25 jaitsiko da laguntza lanegunetan jasotzen bada, % 15 asteburuetan baino jasotzen ez bada eta % 40 jarraian jasotzen bada.

3.- Mendekoek hainbat zerbitzu aldi berean erabiliz gero; hau da, etxerako laguntza zerbitzuak eta eguneko zentroen (publiko zein pribatuen) zerbitzuak edo eguneko arretarako landa zentroak emandako zerbitzuak, aurreko ataletan ezarritako murrizketak ezarriko dira; baina ezin izango da prestazio ekonomikoa % 50 baino gehiago murriztu.

Histórico de Alava, según queda redactado en el documento anexo a esta disposición.

**Segundo.-** El presente Decreto Foral entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Álava.

**Tercero.-** Ordenar su publicación en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Álava.

Vitoria-Gasteiz, a 23 de octubre de 2007.– Teniente Diputado General, CLAUDIO RODRÍGUEZ GUTIÉRREZ.– Diputada de Política Social y Servicios Sociales, COVADONGA SOLAGUREN SANTAMARÍA.– Directora de Política Social y Servicios Sociales, AMPARO MAIZTEGUI ADAY.

### Anexo

#### PRESTACIÓN ECONÓMICA PARA CUIDADOS EN EL ENTORNO FAMILIAR PREVISTA EN LA LEY 39/2006, DE 14 DE DICIEMBRE, DE PROMOCIÓN DE LA AUTONOMÍA PERSONAL Y ATENCIÓN A LAS PERSONAS EN SITUACIÓN DE DEPENDENCIA, EN EL TERRITORIO HISTÓRICO DE ALAVA

##### Artículo 1. Objeto

El presente Decreto Foral tiene por objeto la regulación de la prestación económica para cuidados en el entorno familiar prevista en la Ley 39/2006, de 14 de diciembre, de Promoción de la Autonomía Personal y Atención a las personas en situación de dependencia, en el Territorio Histórico de Alava.

##### Artículo 2. Definición

La prestación económica para cuidados en el entorno familiar está destinada a contribuir a la cobertura de los gastos derivados de la atención prestada por la persona cuidadora no profesional, pudiendo ser reconocida en cualquier grado y nivel de dependencia, cuando se reúnan las condiciones de acceso establecidas.

**Artículo 3.** Compatibilidad con el acceso a servicios sociales dependientes de la Diputación Foral de Alava y efectos.

1.- La percepción de la prestación económica regulada por el presente Decreto Foral es compatible con la condición de persona usuaria de cualquier servicio de competencia foral destinado a la atención de la dependencia, con la única excepción de los servicios de atención residencial en modalidad permanente propios o concertados por la Diputación Foral y las prestaciones económicas previstas en la Ley 39/2006.

2.- Asimismo, la percepción de la prestación económica es compatible con la inclusión de la persona beneficiaria en el programa de reasignación de recursos, de cualquier servicio de competencia foral, incluida en este caso la atención residencial.

##### Artículo 4. Uso simultáneo de servicios.

1.- Cuando la percepción de la prestación económica se complemente con la utilización del Servicio Público de Ayuda a Domicilio, la ayuda económica se minorará en tres puntos porcentuales por cada tramo horario, de las siguientes horas mensuales de servicio concedido:

HORAS/MES	<20	<40	<60	<80	80 ó MÁS
Porcentaje	3	8,5	14	19,5	25

2.- Cuando la percepción de la prestación económica se complemente con la utilización de un servicio de Centro de Día, público o concertado, o centros rurales de atención diurna, asignado por la Diputación Foral de Alava, la cuantía económica de la prestación se reducirá en un 25%, si la asistencia es en la modalidad de días laborales, un 15% sólo en fin de semana y en un 40% si la asistencia es en modalidad continua.

3.- En el caso de que la persona dependiente sea usuaria, simultáneamente, de los servicios de Ayuda a Domicilio y Centro de día, públicos o concertados, o Centro Rural de Atención Diurna se aplicarán las reducciones previstas, respectivamente, en los apartados anteriores, sin que la cuantía final de la prestación económica pueda reducirse más de un 50%.

4.- Mendekoak foru aldundiaren eskumeneko egoitza bat erabiltzen badu aldi batez, ez du prestazio ekonomikorik jasoko egoitzan dagoen bitartean.

5. artikulua. Administrazio publikoen arteko lankidetzaz

Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politikaren eta Gizarte Zerbitzuen Sailak gizarte zerbitzuen gainean eskumena duten gainontzeko administrazio publikoekin batera, modu koordinatuan, baliatuko ditu bere eskumenak.

6. artikulua. Onuradunak

1. Prestazio ekonomikoaren onuradun izan ahalko dira mendekotasun egoeran dauden pertsonatzat balioetsitakoak, ondoko arau hauek xedatutakoarekin bat etorriz: Arabako Lurralde Historikoan mendekotasun egoera onartzeko prozedura, beregain izaten laguntzen duen sistemaren zerbitzuak jasotzeko eskubidea eta era, eta mendekoei eskaini beharreko laguntzak arautzen dituen Diputatuen Kontseiluaren apirilaren 24ko 39/2007 Foru Dekretua eta Beregintasan Pertsonala Sustatzeko eta Mendekotasun Egoeran bizi diren Pertsonen laguntzeko abenduaren 14ko 39/2006 Legearen (honen bidez legeak eskaintzen dituen zerbitzu eta prestazioak eskuratzeko benetako eskubidea ezartzeko egutegia ezartzen da) azken xedapenetatik lehenengoa. Bi arau horiek xedatutakoaz gain, foru dekretu honen bigarren xedapen iragankorrak xedatutakoa ere izango da kontuan.

2. Mendekoak familian bertan zainduak izateko prestazio ekonomikoa eskuratzeko baldintzak:

- a) Mendekotasun egoera dela eta, mendeko pertsona ohiko etxebizitzan zaindua izatea.
- b) Zaintzaileak eman beharreko laguntza, baita bere prestakuntza ere, mendeko pertsonaren premietara egokitzea, mendekotasun gradua eta maila zein den.
- c) Elkarrekin bizi ahal izatea eta bizitzeko etxe egokia izatea, zaindu beharreko pertsona behar bezala zaintzeko.
- d) Banakako arreta programak prestazioa egokia den ala ez zehaztea.
- e) Estatuan bost urte bizi izana legez; besteak beste, eskaera aurkeztu aurreko azken biak. Bost urte baino gutxiago dituztenen kasuan, bertan bizi beharreko aldiaren baldintza haurren zaintza eta babespea dutenei eskatuko zaie.

Eskaera hori egiaztatutzat joko da eskaera egin duen pertsonak estatuan badu etxebizitza eta bertan bizi bada, baita egoitzaduna bada ere.

- f) Atzerrira joan, baina bueltan direnek laguntza prestazioak eska ditzakete, estatuan bizi beharreko aldiari buruzkoak bete ez arren. Baldintza hori Beregintasan Pertsonala Sustatzeko eta Mendekotasun Egoeran bizi diren Pertsonen Laguntzeko Legearen 5.1.c) artikulua eskatzen du, ekainaren 8ko 727/2007 Errege Dekretuarekin bat etorriz. Errege dekretu hori aipatu legeak eskaintzen dituen zerbitzuak eta prestazio ekonomikoak zenbateraino babestu zehazteko irizpideei buruzkoa da.
- g) Prestazio eskaera aurkeztean Arabako Lurralde Historikoan erroldatuta egotea.

3.- Aurreko baldintza guztiak bete arren, Espainiako nazionalitatekin ez duten pertsonen ondoko arau hauek xedatutakoa izango dute araubide: Espainian dauden atzerritarren eskubideei eta betebeharrei buruzko eta horiek gizarteratzeari buruzko urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoa, nazioarteko itunak eta jatorrizko herrialdearekin batera egindako hitzarmenak. Espainiako nazionalitatekin ez duten adingabeen kasuan, adingabeen indarreko legeek, nola estatukoek hala autonomia erkidegoetakoek, xedatutakoa izan beharko da kontuan; baita nazioarteko itunek xedatutakoa ere.

7. artikulua. Zaintzaile ez profesionalak bete beharrekoak

Zaintzaile ez profesionalak, mendekotasun egoeran dagoen pertsonaren zaintzaren eta hari laguntza ematearen ardura duen pertsona den aldetik, ondoko baldintza hauek bete beharko ditu:

4.- En el caso de que la persona dependiente acceda a un servicio de estancia residencial temporal de competencia foral, la percepción de la prestación económica quedará suspendida durante los días correspondientes a la estancia.

Artículo 5. Colaboración entre Administraciones Públicas

El Departamento de Política Social y Servicios Sociales de la Diputación Foral de Alava ejercerá sus competencias en esta materia de forma coordinada con las demás Administraciones Públicas competentes en materia de servicios sociales.

Artículo 6. Personas beneficiarias

1. Podrán ser beneficiarias de esta prestación económica, las personas valoradas como personas en situación de dependencia, conforme a lo dispuesto por el Decreto Foral 39/2007, del Consejo de Diputados de 24 de abril, que regula el procedimiento de reconocimiento de la situación de dependencia, el derecho y el acceso a los servicios del sistema para la autonomía y atención a la dependencia en el Territorio Histórico de Alava y lo dispuesto en la Disposición Final Primera de la Ley 39/2006, de 14 de diciembre, de Promoción de la Autonomía Personal y Atención a las personas en situación de dependencia, por la que se establece el calendario de implantación del derecho efectivo a los servicios y prestaciones de la Ley, sin perjuicio de lo establecido en la disposición transitoria segunda de este Decreto Foral.

2. Las condiciones de acceso a la prestación económica para cuidados en el entorno familiar son las siguientes:

- a) Que los cuidados que se deriven de su situación de dependencia se estén prestando en el domicilio habitual de la persona dependiente.
- b) Que la atención y cuidados que ha de prestar la persona cuidadora y su formación, se adecuen a las necesidades de la persona dependiente en función de su grado y nivel de dependencia.
- c) Que se den las condiciones adecuadas de convivencia y de habitabilidad de la vivienda para el desarrollo de los cuidados necesarios.
- d) Que el Programa Individual de Atención determine la idoneidad de esta prestación.
- e) Residir legalmente en territorio estatal y haberlo hecho durante cinco años, de los cuales dos deberán ser inmediatamente anteriores a la fecha de presentación de la solicitud. Para los menores de cinco años el periodo de residencia se exigirá a quien ejerza su guarda y custodia. Este requisito quedará acreditado siempre que la persona solicitante tenga su domicilio en territorio estatal y resida en el mismo, así como que ostente la condición de residente.
- f) Los emigrantes retornados podrán acceder a las prestaciones de naturaleza asistencial, aun cuando no cumplan el requisito de los periodos de residencia en territorio estatal exigido en el artículo 5.1 c) de la Ley de Promoción de la Autonomía Personal y Atención a las Personas en Situación de Dependencia, de conformidad con el Real Decreto 727/2007, de 8 de junio, sobre criterios para determinar las intensidades de protección de los servicios y la cuantía de las prestaciones económicas de la Ley.
- g) Estar empadronada en el Territorio Histórico de Alava en el momento de presentar la solicitud de la prestación.

3.- Las personas que, reuniendo los requisitos anteriores, carezcan de la nacionalidad española se registrarán por lo establecido en la Ley Orgánica 4/2000, de 11 de enero, sobre derechos y libertades de los extranjeros en España y su integración social, en los tratados internacionales y en los convenios que se establezcan con el país de origen. Para los menores que carezcan de la nacionalidad española se estará a lo dispuesto en las Leyes del Menor vigentes, tanto en el ámbito estatal como en el autonómico, así como en los tratados internacionales.

Artículo 7. Requisitos de la persona cuidadora no profesional

La persona cuidadora no profesional, como persona que se encarga del cuidado y atención de la persona en situación de dependencia, deberá reunir los siguientes requisitos:

Xedapen honen ondorioetarako, zaintzaile bakarra izatea.

1. 18 urte edo gehiago izatea.
2. Espainiako estatuan legez bizi izatea.
3. Mendekotasun egoeran bizi den pertsonaren senar-emaztea edo izatezko bikotea izatea. Bestela, odol ahaidetasunez, kideetasunez edo adopzioz, hirugarren mailara arte, senide izatea.
4. Prestazioaren onuradun den pertsonaren etxebizitza berean erroldatuta egotea, prestazioa eskatu baino urtebete lehenago, gutxienez.

Salbuespen gisa, eta beti gizarte zerbitzuek aldeko txostena egin ondoren, 3. graduko (2 eta 1 mailak) mendekotasun egoeran dagoen pertsona senide loturarik ez duen baina bere etxean erroldatuta dagoen pertsonaren batek zaintzen badu edo, senide izan arren, etxebizitza berean erroldatuta ez dagoen (baina bai udalerrri berean) pertsona batek zaintzen badu, Arabako Foru Aldundiak onartu egin ahal izango du mendekoak etxean bertan zainduak izateko prestazio ekonomikoa, baldin eta egoerok egokitzat jotzen baditu banakako arreta programak.

6.- Gizarte Segurantzako afiliazio, alta eta kotizazio baldintzak maiztaren 11ko 615/2007 Errege Dekretuak edo horren ordezko arauak ezarritako eran betetzea. Errege dekretu horrek mendekotasun egoeran dauden pertsonen zaintzaileen gizarte segurantzara arautzen du.

7.- Kasu guztietan eskatuko da zaintzaileak mendekoa behar bezala zaindu dezala eta hari eman beharreko laguntza eman diezaiola; baita ez dezala laguntza profesionala emateko zerbitzu batekin zerikusirik izan ere.

8. artikulua. Prozedura bideratzea eta ebaztea

1.- Interesduna mendekotzat balioetsi bada eta berari egindako banakako arreta programak prestazio hori zehazten badu, eskaera aurkeztu ahal izango du, Arabako Lurralde Historikoan mendekotasun egoera onartzeko administrazio prozedura, beregain izaten laguntzen duen sistemaren zerbitzuak jasotzeko eskubidea eta era, eta mendekoei eskaini beharreko laguntza onartzen duen 39/2006 Legearen 6. artikuluekin eta I. eranskinak jasotako araututako ereduarekin bat etorriz. Eskaera Gizarte Ongizaterako Foru Erakundean zein, Gasteiztik kanpo biziz gero, interesdunaren udalerriko oinarrizko gizarte zerbitzuan, aurkeztuko da (edonola ere, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak 38.4 artikuluan ezartzen duen zainahi eratan aurkeztu ahal izango da) agiri hauekin batera:

- a) Arabako Foru Aldundiaren Gizarte Politikaren eta Gizarte Zerbitzuen Sailari atxikitako Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde Autonomoari emandako baimena, fitxategi informatizatuetan dauden datu pertsonalak, ekonomikoak, osasunekoak eta sozialak helburu hauekin erabiltzeko: estatistikak zein ikerketa zientifikoak egiteko eta Gizarte Politikaren eta Gizarte Zerbitzuen Sailaren berezko eginkizunetan jarduteko. Hori guztia, datu pertsonalak babesteko legediak arautzen duen moduan egingo da.
- b) Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeari emandako baimena, beste administrazio publiko batzuen, Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalaren eta Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiaren datu baseetan kontsultak egiteko. Kontsulta horien helburua da onuraduna gizarte babeseko beste araubideren batean izaera eta helburu bera duen beste edozein prestazio titulara den ala ez egiaztatzea.

2.- Agiri guztiak ez badira aurkezten edo aurreko artikulua adierazitako agiriren bat falta bada, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen administrazio unitate eskudunak edo, hala badagokio, oinarrizko gizarte zerbitzuak edozein momentutan eska diezaiokete eskaera egin duen pertsonari falta diren nahitazko agiriak hamar egun baino lehen aurkez ditzala, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak 71,1 artikuluekin bat etorriz; halaber, ohartaraziko dio eskatutakook

A efectos de la presente disposición se identificará una sola persona cuidadora.

1. Ser mayor de 18 años.
2. Residir legalmente en el Estado español.
3. Ser cónyuge, estar registrada como pareja de hecho, o ser pariente por consanguinidad, afinidad o adopción, hasta el tercer grado de parentesco, de la persona en situación de dependencia.
4. Estar empadronada en el mismo domicilio que la persona beneficiaria de la prestación desde al menos con un año de antelación a la fecha de presentación de la solicitud.

Excepcionalmente y siempre previo informe favorable de los Servicios Sociales correspondientes, cuando la persona se encuentre en situación de dependencia en grado 3 (niveles 2 y 1), esté recibiendo cuidados por parte de una persona con la que pese a estar empadronada no presenta vinculación familiar, o de una persona que pese a ser familiar no tenga su empadronamiento en el mismo domicilio aunque sí en el mismo municipio, y siempre que esta situación se contemple como adecuada en su Programa Individual de Atención, la Diputación Foral de Alava podrá reconocer la prestación económica para cuidados en el entorno familiar.

6.- Reunir las condiciones de afiliación, alta y cotización a la Seguridad Social en la forma establecida por el Real Decreto 615/2007, de 11 de mayo, por el que se regula la Seguridad Social de los cuidadores de las personas en situación de dependencia, o normativa que lo sustituya.

7.- En todos los casos, se exigirá que la persona cuidadora reúna condiciones de idoneidad para prestar el cuidado y atención de forma adecuada y no estar vinculada a un servicio de atención profesionalizada.

Artículo 8. Instrucción y resolución del procedimiento

1.- Si la persona interesada ha sido valorada como dependiente y en su Programa Individual de Atención se determina esta prestación, podrá presentar su solicitud, de acuerdo al artículo 6 del Decreto Foral 39/2007, que regula el procedimiento para el reconocimiento de la situación de dependencia, el derecho y el acceso a los servicios del sistema para la autonomía y atención a la dependencia en el Territorio Histórico de Alava y conforme al modelo normalizado recogido en el Anexo I, ante el Instituto Foral de Bienestar Social o en el Servicio Social de Base de su municipio si residen fuera de Vitoria-Gasteiz (sin perjuicio de la utilización de cualquiera de las formas previstas en el artículo 38.4 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común), junto con la siguiente documentación:

- a) Autorización al Instituto Foral de Bienestar Social, Organismo Autónomo adscrito al Departamento de Política Social y Servicios Sociales de la Diputación Foral de Alava para que los datos de carácter personal, económicos, sanitarios y sociales que integren los ficheros informatizados, puedan ser utilizados con fines de producción de estadísticas e investigación científica y para las funciones propias del Departamento de Política Social y Servicios Sociales, en los términos previstos por la legislación de protección de datos de carácter personal.
- b) Autorización al Instituto Foral de Bienestar Social, para poder consultar las bases de datos de otras Administraciones Públicas, Instituto Nacional de la Seguridad Social y Tesorería General de la Seguridad Social, para comprobar si la persona beneficiaria es titular de cualquier otra prestación de igual naturaleza y finalidad en otro régimen de protección social.

2.- En el supuesto de que la documentación se hubiera presentado incompleta o faltara alguno de los documentos señalados en el artículo anterior, la unidad administrativa competente de este Instituto Foral de Bienestar Social o el Servicio Social de Base en su caso, en cualquier momento podrá requerir a la persona solicitante, de acuerdo con lo establecido en el artículo 71.1 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, para que en el

aurkeztu ezean, eskaerari uko egiten diola esan nahiko duela, 30/1992 Legearen 42. artikulua jasotako eran eman beharreko ebazpena eman ondoren.

3.- Arauzko espedientea izapidetu ondoren eta, hala badagokio, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen administrazio unitate eskumendunaren teknikari taldeak gaia aztertu, irizpena eman, eta proposamena egin ondoren, erakunde zuzendaritza kudeatzaileak eman beharreko ebazpena emango du, eskatutako laguntza emango den ala ez jaso; halaber, interesdunari 30/1992 Legeak zehaztutako moduan jakinaraziko dio.

Ebatzia emateko, gehienez ere, 3 hilabete izango dira, aurkeztu beharreko erregistroan eskaera aurkezten denetik aurrera. Ebatzia emateko epea betatu eta interesdunari ebazpenaren berri eman ez bazaio, administrazio isiltasunaren bidez, prestazio eskaera onartu egin zaiola esan nahiko du.

4.- Eskatzaileak prestazioaren onuradun izateko eskatzen diren baldintzak betetzen ez baditu, berari edo, hala badagokio, legezko ordezkariari zein egiteko zaintza duenari entzunaldiko nahitaezko izapidea jakinaraziko zaio, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 84. artikulua xedatutakoarekin bat etorritik.

5.- Prozedura honetan emandako ebazpenarenaren, administrazio bidea amaitzen ez duenaren, aurka gorako errekurtsioa jarri ahal izango zaio Gizarte Ongizateko Administrazio Kontseiluari. Horretarako hilabete izango da ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera. Errekurtsio hori Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak arautzen du.

6.- Ebazpenaren aurka jarritako gorako errekurtsioaren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu ahal izango da administrazioarekiko auzietarako jurisdikzioan eskumena duen epaitegian. Horretarako bi hilabete egongo dira, ebazpenaren aurka jarritako gorako errekurtsioa ebazten duen jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazioarekiko Auzietarako Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak xedatutakoarekin bat etorritik.

9. artikulua. Prestazioaren zenbatekoa zehaztea

1.- Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Administrazio Kontseiluak urtero onartuko du foru dekretu honetan araututako prestazio ekonomikoaren zenbatekoa prestazioetarako eskubideak dituzten gradu-mailetarako, 39/2006 Legearen egutegiari eta foru dekretu honetako bigarren xedapen iragankorrean xedatutakoari jarraituz. 2007ko prestazioetarako ezarri den zenbatekoa honakoa da:

GRADUAK ETA MAILAK	PRESTAZIO EKONOMIKOIA HILEAN
III. gradua, 2 eta 1. maila	487 €
II. gradua, 2. maila	390 €

2.- Pertsona onuraduna foru dekretu honetan araututako prestazio ekonomiko baten titularra baino ezingo da izan. Laguntzen titularrak eta mendekotasun egoera dauden beste batzuk etxe berean bizi badira, horietako bakoitzari % 25 murriztuko zaio prestazioa.

10. artikulua. Murrizketak

Onuraduna gizarte babeseko beste araubide publiko batean ezarritako izaera eta helburu bera duen beste prestazio bateko titularra denean, aurreko artikulua aipatutako zenbatekotik honako prestazioak kenduko dira:

- Baliaezintasun handiaren osagarria, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren ekainaren 20ko 1/1994 LEDk 139.4 artikuluan xedatutakoa.
- 18 urte edo gehiago izan eta ezintasun gradua % 75 edo gehiago duen seme-alabaren bat norbere karguan izateagatik esleipen ekonomikoaren osagarria, ekainaren 20ko 1/1994 LEDk 182 bis.2c artikuluan araututakoa.

